



PRENTSA-OHARRA

Toulouseko Ganbera Orkestraren kontzertua Gasteizko Santa Maria Katedralean

- Kontzertua ekainaren 1ean, larunbata, izango da 19:30ean.
- Bihartik, maiatzaren 23tik, aurrera, herritarrek beren gonbidapenak jaso ditzakete Bisitarien zentroan edo www.catedralvitoria.eus web gunean

Gasteizen, 2024ko maiatzaren 22an.- Musika klasikoa entzungai izango dugu beste behin Gasteizko Santa Maria Katedraleko elizpean, datorren ekainaren 1ean, larunbatean, oraingo honetan **Toulouseko Ganbera Orkestraren** eskutik.

Kasu honetan, Toulouseko Ganbera Orkestrak, Gilles Colliarden musika-zuzendaritzapean, Italiako barroko konpositore handienak bildu nahi izan ditu. Programak bere asmamen guztia neurtzeko aukera emango du, eta garaiko instrumentu originalekin interpretatuko da.

Bihartik, maiatzaren 23tik, aurrera, herritarrek **gonbidapenak jaso** ahal izango dituzte Bisitarien Zentroan (Santa Maria Kantoia, 3) eta www.catedralvitoria.eus web gunean.

Toulouseko Ganbera Orkestra

Toulouseko Ganbera Orkestra Louis Auriacombek sortu zuen 1953. urtean, 50eko hamarkadako abentura musikal handian murgiltzeko asmoarekin. Harizko 12 instrumentalista bakarlarik eratu zuten. Berehala eta lan gogor eta zorrotz bati esker, taldeak musika-nortasuna, koloreen zabaltasuna eta aberastasuna eta adierazpen-argitasuna lortu zituen.

Gogoberotasuna eta dedikazioa medio, musika barrokotik sorkuntza garaikidera bitarteko errepertorio zabalarekin, Orkestra laster ospetsu izatera iritsi zen nazioan zein nazioartean. Era horretan, abentura musikala eta gizatiarra abian jarri zen, eta gaur egun arte etenik gabe jarraitu du, nahiz eta gorabehera asko izan. Horrela, kontinente guztietara iritsi da orkestra, publiko guztiekin elkartzeko.

Arrakasta liluragarri baten historia da, beren pasioari eta balioei inoiz uko egin ez dieten gizon eta emakumeen historia, eredu batek bultzatutako "troupe" baten historia. 5.000 kontzertu baino gehiago eman dituzte 30 herrialde baino gehiagotan, 60 diskotik gora

FUNDACIÓN CATEDRAL SANTA MARÍA KATEDRALA FUNDAZIOA

Cuchillería, 93 · 01001 Vitoria-Gasteiz · / www.catedralvitoria.eus

Prentsa / Prensa: Elena Benito - T. +34 94 403 40 50 - Ext.: 2501 - comunicacion@atedralvitoria.eus

grabatzearekin batera. Musikarien belaunaldiak bata bestearen atzetik etorri dira, interpretatzeko estiloa etengabe aldatu da, administrazio-antolaketa modernizatu egin da, orkestrak hasierako sortzaileen jarrera existentzialari inoiz uko egin gabe:

“Ez dago kontzertu txikirik,
Ez dago publiko txikirik”.

Orkestra sortu zenetik, esaldi horrekin egiten diegu ongietorria musikari berri guztiei —azaldu dute—. Gure arteko musikaririk zaharrenak ikasmahaian prestatu zituzten TGoko sortzaileek 1953an, eta haien eskuetatik jasotako tradizio hori gazteenei transmititzen diegu aldi berean, beren ideiekin aberastu eta berriro ondorengo belaunaldiei transmititu diezaieten.

PRESS KIT

Kalitate handiko argazkia: <https://we.tl/t-xBlm750BXx>

Argazkia: OCT @OraneBenoit

FUNDACIÓN CATEDRAL SANTA MARÍA KATEDRALA FUNDAZIOA

Cuchillería, 93 · 01001 Vitoria-Gasteiz · / www.catedralvitoria.eus

Prentsa / Prensa: Elena Benito - T. +34 94 403 40 50 - Ext.: 2501 - comunicacion@atedralvitoria.eus